



BALIO PROPOSAMENA

Gazteei bidaiatzeko erraztasuna eta taldeen jarduera gauzatzeko aukera berriak eskaini nahi dizkiegu. Leku berriak ezagutu eta jende berriarekin harremanak eduki dezaten. Proposamen honekin, gazteei zuzendutako bidaia agentzia bat sortuko dugu. Agentzia hau, berritzailea eta ezberdina izango da beste guztiekin alderatuz. Hortaz, gazteen ekonomiarako merkea izango da, merkea izan arren ekintza eta esperientzia izugarriekin osatuta egongo da gure proiektua. Horrez gain, bertan gazteei aukera emango diegu dirua lortzeko, erraz eta giro paregabe.

Gazteen aisialdi gabezia konpontzeko intentzioarekin sortuko dugu enpresa, izan ere, konstziente gara hainbat bidai enpresa daudela jada baina gure enpresa gazteentzako zuzenduta egongo da zehazki.

Alde batetik, oso eskuragarria eta erraza izango zaie gazteei enpresarekin kontaktuan jartzea eta bidai bat antolatzea, gure gertutasuna dela eta. Gainera, prezioak ez dira oso altuak izango gazteen gehiengoek parte hartzeko aukera edukitzeko, hortaz prezioa arazo bat ez izaten saiatuko gara. Horrekin lotuta, bidaia finantzatzen lagunduko genieke rifak edo denadelakoak eskeiniz.

Lehen aipatu bezala, gure enpresa bereziki gazteei zuzenduta egongo da. Beraz, gazteen gustuetan eta beraien beharretan oinarritutako enpresa bat izango da. Are gehiago, hainbat lekuetara bidaiatzeko aukera emango genuke eta hainbat adarretako aisialditarako ekintzak antolatuko genituzke gazte guztien gustoak bilduz.

Gure enpresak hartuko du lanaren zati handiena, ahalik eta gehien **erraztuko** diegu **lana** eta prozesua, gure bezeroei erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko.

Prezioari dagokionez, nahiko prezioa eskuragarriak jarriko ditugu eta horrekin batera bidaia finantziatzeko aukera emango dizkiegu gazteei, adibidez rifak saltzea, lan postuak eskeintzea... Era horretan gazteek ez lukete ordaintzeko arazorik edukiko.

Gazte guztientzako **eskuragarria** izango litzateke, bi zerbitzu mota eskainiko genituzke: bulego fisikoan eta online bidez. Bulego fisikoari dagokionez, hainbat herritan kokatuta egongo zen, beraz gazteentzat errazagoa izango zen laguntza eskatzea. Beste aldetik, online bidez egin nahi duten gazteentzat ere aukera egongo litzateke, izan ere, interneten web-orri bat sortuko genuke bertan bidaia planifikatzeko eta sarrerak erosteko.



Gazteen aisialdia hobetzea denez proiektuaren helburua **erabilerraza** izango da, gazteek kontrolatu ahal izateko. Horretarako, web gune bat sortu dugu eta gazteak prozesua egiteko jarraitu beharreko pausuak jarraibide testu baten bidez azalduko ditugu. Jarraibide hau erraza izango da irudiekin eta adierazpen sinplearekin adierazita egongo delako. Gainera, ikastola ezberdinetan banatuko ditugu jarraibideak gazteengana errazago iristeko gure proiektua.